

Hiri hondakin solidoak



 Mikel Soto

«Egileak ez ditu derrigor bere gain hartzen pertsonaiek adierazten dituzten iritziak (egilea irrespontsable bat da, bistan denez)». Eleberri bat hasteko modu ederral!

Batzuetan nahasten dira egilearen iritziak pertsonaia batek ematen dituen iritziekin, pertsonaiarenak egilearenak balira bezala, eta alderantziz. Batzuetan, egilearen eta pertsonaien iritziak bat datoz, eta beste batzuetan ez, eta komeni da irakurlea horretaz ohartaraztea. Beste alde batetik, ez dut uste aipu horrek kode penala urratzeagatiko erantzukizunetatik libratuko nauenik, halakorik balego, baina leungarri moduan erabiltzen ahal dut, beharbada.

Aurreko liburuan euskal sukaldaritza zirikatu zenuen, orain Euskaltzaindia... Hurrengoan bertsolaritza? Athletic?

Ez bata eta ez bestea. Baina lasai, bada zer zirikatu, betikoek beti zirikatzen dutenaz aparte.

Nolanahi ere, badaude Hiri hondakin solidoak zure aurreko Euskal Karmarekin lotzen

dituen hariak/obsesioak/sesioak... Aurre-rapen gutxi ordutik ala karma txarra?

Karma txarra izango da. Esaten dute Borgesek esan zuela beti ari zela idazten ipuin berbera edo poema berbera. Sartu Googlen, «berridatzi nobela berbera», «*écrire toujours le même roman*», «*escribir siempre lo mismo*», eta gisakoak, eta ikusiko duzu zenbat izen agertzen zaizkizun berehala: Pérez Reverte, Juan Madrid, Patrick Modiano, García Márquez, Roberto Bolaño... Ez dut nire burua konparatu nahi idazle handi horiekin, noski. Ni askoz hobea naiz.

Literatura beltza, umorea, filosofia, esperimentoa... Egungo errealitatea azaltzeko ezinbesteko osagaiak ala ongi pasatzeko koktel hutsa?

Biak. Literatura beltza denen ahotan dagoen garai honetan, gero eta gehiago gogoratzen naiz Vázquez Montalbán zenak 1987 edo 1988an eman zuten elkarrizketa batean esaten zuenaz: hari interesatzen zitzaiona haxe zela, generoaren erreferenteak hartzen zituen literatura bat, gero

erreferente horiek bere eginez, edo haiekin jokatzuz, edo itzulipurdikatuz beharrezkoa izatera, generotik harago dagoen beste zerbait sortzeko. Ni horretan Big Manoloren jarraitzaile peto-petoa naiz. Nik uste dut jende askok daukala antzeko ideia gaur egun, euskal idazleetan ere bai: esaterako, Igerabidek, Etxeberria anaiek, beren azken nobeletan... zer egiten dute, bestela?

Hainbat pertsonaia berri agertu dira Lanbasen bizitzan... Kuttunik?

Lanbas gaixoa oso bakarrik dago. Uste dut parrandarako lagunen bat asmatu beharko diodala.

Asko dokumentatu beharra dago edozein nobela -on- idazteko. Zertan «galdu duzu» denbora gehien Hiri hondakin solidoak idazteko?

Euskaltzaindiaren kontuak, zaharrak eta berriak, Bartzelonako auzoetako gorabeherak, Unibertsitatearen ajeak eta zoko-mokoak...

Zer galdetuko zenioke zuk «Badirudi eleberri beltzak loraldi bat bizi duela Euskal Herrian...» galdetzen dizun kazetari bati?

Zer mediotako izan, eta zer piura, eta horren arabera. Zuzentasunaren barruan mugitu nahi izanez gero - zuzentasun erlatibo bat betiere- hone-lako zeozer: «Aizu, zer neurri hartuko zenuke kazetarien langabezia tasa jaisteko?». Batere zuzentasunik gabe jokatzera, beste hau: «Badirudi ez duzula denbora luzea pasatu elkarriketa prestatzen...».

Azkenik, Lanbasek komunean daukan apa-
lategitik liburu bat gomendatuko diguzu?

Historia, arraza, nazioa, Joxe Azurmen-
direna eta *Años de peregrinación y lucha*,
Federico Krutwigena.*

Nobela beltza-Laburrean

Idazle bat
The Big Manolo.
Liburu bat
Todo Modo, Leonardo
Sciasciarena.
Klasikoetan klasikoena
Uzta gorria, Hammetena, edo
Ez adiorik, Chandlerrena.
Berritzaileetan berritzaileena
Patrick Manchette, bere garaian.
Euskarazko onena
Dazerdit.
Vallecasko madero bat ala
Baztango foral bat?
Ez bata eta ez bestea.


iraila

liburu gomendatua

Jon Alonso

HIRI HONDAKIN SOLIDOAK

Enekoitz Ramirez, Lanbas, etakide ohia, preso ohia, arte salerosle ohia eta lapur ohia zintzoen saldoarentzat lanean jarraitzen du. Oraingoan Euskaltzaindian jasotako hainbat mehatxu ikertzen jarriko dute lehenik eta, gero, Bartzelonan, edukiontzi batean biluzik eta hilik agertu den unibertsitate euskaltzainaren heriotza. Hala, bada, ertzainak prostitutak, unibertsitate irakasleak, mossoak, kazetariak, euskaltzainak eta mota guztietako hondakinak agertuko zaizkigu Lanbasen abentura berri honetan.



Aldaketa
abuztuaren
25a
baino lehen

0506037 TXALAPARTA

ELEBERRIA

336 or.

Salneurria 18,50 €

Bazkideak 14,40 €



EGILEA

Jon Alonso (Iruñea, 1958). Biologian lizentziaduna, euskara irakaslea izandakoa, gaur egun itzultzailea da. 1995ean Mikel Zarate saria jaso zuen Idiaren eraman handia saiakeragatik. 2001ean, aurreneko Juan Zelaia saria irabazi zuen *Agur, Darwin (eta beste arkeologia batzuk)* lanarekin. 1995ean argitaratu zuen lehen nobela, *Katebegi galdua*, eta 1998an nobela eta saiakera artean dagoen *Camembert helburu* lana. Ondoren, *Euskal karma rapsodia*, *Hodei berdeak* eleberria, *Erretzaileen eremua* ipuin liburua argitaratu ditu, besteak beste. *Camembert helburu* lanean aurrenekoz agertutako Enekoitz Ramirez *Lanbasen* ibilera berriak kon-tatu zituen 2012an argitaratutako *Zintzoen saldoan* eta, orain, eskuarte-an daukazun *Hiri hondakin solidoak* eleberrietan. Itzulpengintzan ere aritua da; berak euskaratu zuen Jose Samaragoren *Lisboako setioaren historia*, Julio Cortazarren zenbait ipuin Julio Cortazar: *Antologia apetatsua* eta Jon Bilbao-ren *Kometaren eraginean*.